

ABIZENAK

Onaindia: Bizkaian eta geien Markiñan. “Oian-” eta “aundi” batuta izan leiteke eta “baso aundia” esan gura dau. Bilbao’n 1759.

Ondarroa: Ondarra edo area ugari dagon lekua “-oa” toki-atzizkia da.

Oña: Burgos’ko iparraldean dago erria eta an XIV giza-
dian an euskera egiten zan. Mungialdeko Meñakan be
ba-egozan. “Mendiaren oiña” esan nai dau. Seguran
1374.

Oñarte-Etxebarria: Mendi oiñen artean dagoan etxe
barria da. Legazpian 1383.

Oñatibia: “Oiñ-Ate-Ibia” “Mendi-oiñen artean pasa-
lekua” Seguran 1390.

Okiña-Okiñena: Ogi-giña dagon lekua ta onen etxea.

Orbe: Gipuzkoan, batez Bergara-aldean eta Bizkaian
leku askotan: Arrietan, Marurin, Elorrión. Orripena dala
dirudi, baiña “gorbea”k be ba-dauko olako zerbait. Arra-
saten 1530.

Orbezua: Zeanuri’n. “Orbe” edo orripen ugaria dauan
lekua. Zeanurin 1745.

Ordorika: Arrietan 1739. “Ordo-” “avena” eta “-ika”
toki-atzizkia. Bedar ori ugari dagon lekua.

Orduña: “Urduna” ura daukan tokia. Arrasaten 1446.

Orendain: Gipuzkoatik Naparroara. “Oren-” abereen
janaria eta “-ain” gainean, toki-atzizkia. Bedarra dagon
tokiaren gainea.

Oreja: Gipuzkoan dago erria. Iñoz ez dau esan gura
“belarri”. “Ore” bedarra dan ezker, “-xa” edo “-tza”
ugaritasuna da. Toki bedartsua. 1566.

Orella: Oreja bera da, orduan bedarleku ugaria. Korella
be orixe da eta Naparroan agertzen da 1722.

Ormaetxe(a): Ormaz egindako etxea. Artzaiñen etxea,
teillabakoa, jaberik ez daukana. Bilbao 1651. Batzuk
atxeagaz idazten dabe, latinean “forma” zalako.

Ormaza: Orma asko dauan etxea. Bizkaian 1659.

Orozko: “Oro” mendia dala dirudi, gerkeran lez, eta
orrelan “mendi asko dagoan lekua litzake, baiña “oro”
goroztia dala diñoe. Arrasaten 1461.

Ortiz: Naparroan 1300. Karrantzan. Nire ustez latineko
“fortis” da eta abizen lez gero artua: “Santius fortis”.
Ortik dator gero Fortunio.

Ortu: Abizen askoren oiñarri. Izan leiteke lateratik artu-
tako “hortus”, edo euskeratik “oro/olo” avena.

Ortueta: Oñaten. Ortuak dagoen lekua. Elorrión 1575,
Oñaten 1416.

Ortuzar: Zeanurin etxea, beste leku batzutan be bai.
Ortua ba-dakigu zer dan eta “-zar” be bai. Ori da? Arra-
saten 1546.

Orue: Sodupen, Zeanurin eta abar. Lurzatia da, etxea
egitekoa be bai. Bilbaon 1638.

Osinago: “Osin-” ura geldi dagon lekua da, pozua eta “-
aga” mugatzaille sendoa, orduan “ura geldi dagon
lekua”. Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago: Arrasaten
1352, Oñaten 1451.

Otaui: Otea ezaguna da eta “-dui” ugaritasuna, ortik “-
di”: “marasdui” eta “maasti” bat dira. Oñaten 1489.

Otegi (Otaegi): Otea dagon aldapa edo ikuspegia.
Gipuzkoan zabal dabil. Urretxun 1652.

Otalora: Otearen lorea izan leiteke, baiña beste batzu
“otaola” dala diñoe: ota asko dagon lekua. Elorrión
1590.